

**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA**

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai
Politikako Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta Industriako
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE**

Viceconsejería de Agricultura, Pesca y
Política Alimentaria
Dirección de Calidad e Industrias
Alimentarias

Ohar argigarriak:

- Justifikazio-gastuak aurkezteko azken eguna 2022/01/31 izango da.
- 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte egindako gastuen fakturak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.
- Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratzen badira, idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, gorabehera horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean, eta, nolana ere, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.
- Onartutako proiektua aurreikusitako epeetan egiten ez denean edo eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatzen edo birprogramatzen denean, aurkeztutako proiektua funtsean aldatzen ez bada, eta betiere laguntza emateko helburuari eusten bazaio, idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio zuzendaritza eskudunari, baina ez da laguntza emateko ebazpena aldatuko. Adierazitako aldatetek proiektua aldatzen badute, jakinarazi egin beharko da, eta emate-ebazpena aldatzea ekarriko du.
- Diruz lagundutako jardueraren behin betiko benetako kostua onartutako gastuaren aurrekontua baino txikiagoa bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa likidazio-ebazpen bidez murriztuko da, aplikatu beharreko proportzioan.

- Informazio-, sustapen- eta publizitate-materialari dagokionez:
 - EBren ikurra erakutsiko da, «Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa: Europak landa-eremuetan inbertitzen du» leloarekin batera, produktuak sustatzeko eta informatzeko ekintzetan azaldutako sustapen-bideoetan edo karteletan.



- FEADERen laguntzari buruzko erreferentzia irati-iragarkietan.
- Onuradunaren webgunean lehen deskribatutako logoa agertzea, halakorik badago, kofinantzatutako eragiketaren eta haren helburuen deskribapen labur batekin eta EBren finantza-laguntza nabarmenduta.
- Material grafikoan edo ikus-entzunezkoan, dagokion kalitate-programaren logotipo komunitarioa ere agertu beharko da (BJD, AGB eta ekoizpen ekologikoa).



DOP



IGP



ETG



Prod. Ecológica

- Edari alkoholdunen sustapenean eta publizitatean, edari alkoholdunen kontsumo arduratsuari eta alkoholaz abusatzeko arriskuari buruzko legezko eta arauzko xedapenak betetzen direla egiaztatzen duten egiaztatiriak daude